

### 3. SALGAIEN GARRAIOA

#### 3.1. Salgaien garraioa errepidez

Salgaien garraioari buruzko datuak oinarritzko bi informazio iturritik abiatuta kalkulatu dira:

- Salgaien Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorra (**SGII**), Sustapen Ministerioak 2006. urtean egin zuena. Inkesta hori ikerketa estatistiko jarraitua da eta zama ibilgailuek egindako garraioak zenbatzea du helburu nagusi (6tik gora tonako baimendutako gehieneko pisua duten ibilgailuak eta zama edukierari dagokionez, 3,5 tonatik gorakoak), horren bitartez, sektoreko jarduera maila neurtu, ibilgailuen okupazio maila ebaluatu eta sortutako garraio fluxuen berri izateko. Inkesta 1993tik egiten da etenik gabe eta urtearen 52 asteetan zehar.

SGII-k, beraz, informazio etengabe, denboran fidagarri eta behar bezain banandua eskaintzen du, batez ere lan honetan egiten dugun azterketarako.

2003. urtetik, SGII-k udalerrri barneko fluxuei buruzko informazioa biltzen du.

- Kamioiei Biriatun egindako inkesta 2004. urtean zehar (Mugako Inkesta - MI). Mugan dagoen Biriatuko datuak erabili ditugu, Frantzian egindako salgaien gaineko inkesten barruan, mugako trafikoa zein den eta trafiko hori nola dagoen osatua jakiteko.

Inkesta Biriatuko muga gunea zeharkatu duten 3,5 TN-tik gorako zama edukieradun ibilgailuei egin zaie. Inkesta 2004ko otsaila - 2005eko martxoa aldiari egin da. Inkestan jasotako informazioa xehaturik dago eta identifikatzeko aukera ematen du, inolako zalantza barik, zeintzuk diren EAE eta Europa arteko salgaien trafikoa, eta baita Espainiako gainerako eskualdeen eta Europaren arteko eta Europaren eta Portugalen arteko ondasun fluxuek EAEn sortzen duten igarotzeko trafikoa ere.

Inkestaren emaitzak 2004. urteari dagozkio, eta SGIIren informazioa, berriz, 2006ari dagozkio. Datu eguneratuak eskuratzeko, mugako trafikoa urteko %5eko tasaraino handitu dira, horixe baita azken urteotan ikusten ari dena.

Jarraian datorren taulak, EAEn dabilzan orotariko salgaien fluxuak ezaugarritzeko orduan erabilitako datu iturriak jasotzen ditu.

- Barnekoak: Sustapen Ministerioaren SGII.
- Kanpokoak: EAEn eta Espainiako gainerako eskualdeen arteko erlazioetarako, SGIItik bildutako informazioa erabili da; Europako gainerako herrialdeekiko erlazioei dagokienez, berriz, MI erabili da.
- Igarotzakoa: Inkesta bietako informazioa uztartuz egin da. Espainiako eskualdeen arteko igarotzako bidaiak SGIItik atera dira; Espainia eta Europa arteko igarotzako bidaiak (Portugal salbu), eta Portugal eta gainerako Europa artekoak, berriz, MItik atera dira.

**Taula 1. Salgaien errepideko garraioa kalkulatzeko informazio iturriak**

	EAE	GAINERAKO ESPAINIA	EUROPA
EAE	SGII	SGII	MI
GAINERAKO ESPAINIA	SGII	SGII	MI
EUROPA	MI	MI	MI

BARNEKOAK
KANPOKOAK
IGAROTZAKOAK

Honako ikerketan errepidez garraiatzen diren salgaien bolumena kalkulatzeko erabili den metodologia (2006) eta "2001. urteko EAeko Garraio Eskeraren Azken Irudia" eta horren 2002 eta 2003ko egunerapenetan erabilitako metodologia desberdinak dira.

2001eko lanean, salgaien errepideko garraioari buruzko emaitzak ateratzeko, 2001ean egindako kordoi inkesta erabili da, eta baita bi lan osagarri hauek ere: Bilbo, Pasaia eta Bermeoko portuetan zama ibilgailuei egindako inkesta eta portuetan eta kontsignatarioetan diharduten enpresei egindakoak.

Metodologia horren bidez, eta 2001erako inkesta guneak aztertuta, barneko garraio fluxuei buruzko informazioa ateratzen da (EAE barrua), bertan sortutakoei buruzkoa (sorburu EAE eta helburu gainerako eskualdeak dituztenak) eta igarotzakoei buruzkoa (EAE zeharkatzen dutenak).

- Barneko bidaiei dagokienez, 2001ean soilik eskualde artekoak jotzen dira halakotzat (inkesta guneen lokalizazioarekin ezinezkoa da eskualde eremua gainditzen ez duten bidaiak xehatzea).
- Bertan sortutako bidaiak eta igarotzakoak ondo ezaugarrituta daude, nahiz eta kordoi inkesta batez ari garen eta inkesta hori egiteko ertzaintzaren laguntzarik eduki ez eta, beraz, borondatezko geldialdietan egin behar izan zen (gasolindegia eta ordainlekuak), eta horrek, jakina, alborapenik eragin dezake emaitzetan.

Hortaz, 2001 eta 2006ko ikerketa biotan ateratako datuak ez dira sistematikoki konparagarriak eta zenbait ñabardura azaldu beharra dago eskuratutako zifrak interpretatu ahal izateko:

- 2001ean ez dago eskualdeko eremutik beherako fluxurik jasota, eta horrek barne mugimenduen galera nabarmena dakar.
- 2006an ez da 6 tonatik beherako baimendutako gehieneko pisua duten edo kargako 3,5 tona duten ibilgailuen gaineko informaziorik jasotzen.

Alde metodologiko horien eragina baloratzeko, 2003an egindako SGII-n lortutako emaitzak eta urte berean eguneratutako kordoi inkestan lortutakoak konparatu dira.

**Taula 2. EAEn garraiatutako tonak: 2003ko SGIIren eta EAEko Garraioa Eskaeraren Irudiaren arteko konparazioa. Batez besteko laneguna. 2003.**

	SGII 2003	AZKEN IRUDIA 2003	DESBIDERAPENA %
Barnekoak	206.022	177.768 <sup>1</sup>	-14%
Kanpokoak (bertan sortuak)	160.139	299.422	87%
Igarotzan	71.692	98.282	37%

*Iturria: SGII eta 2003ko Garraio Eskaeraren Azken Irudia. Geuk egina.*

Ikusten denez, barne garraioari dagokionez (eskualde barneko bidaiak kontuan hartzen baitira), SGII-k ematen dituen emaitzek "2003ko Eskaeraren Azken Irudiak" emandakoak gainditu egiten dituzte; dena den, bertan sortutako bidaia gutxiago azaltzen da, 5 tonatik beherako ibilgailuak ez dituzte kontuan hartzen. Igarotzako bidaiei dagokienez, lan biek antzeko emaitzak ematen dituzte, kordoi inkestak osotasunean neurtzen baititu, eta SGII-k ere bai, 5 tonatik gorako ibilgailuetan egiten baitira nagusiki.

<sup>1</sup> Soilik eskualde arteko fluxuak jasotzen ditu.

Lan honetan, 2006ko SGII eta 2006ra eguneratutako 2004ko MI prozesatzetik ateratako zifrak hartzea erabaki da. Erabaki hori hartu da Sustapen Ministerioak egindako SGIIa aldizkako lana delako, lan eskuragarria, ondo xehatua eta urtero eguneratu daitekeena. Inkesta hori 2004an egindako eta 2006rako eguneratutako Muga Inkestarekin osatu da. Prozedura horren bitartez eskuratutako emaitzei dagokienez, aipatu beharra dago soilik 6 tonatik gorako baimendutako gehieneko pisuko karga duten ibilgailuen jarduerak jaso direla. Hori dela eta, garraiatutako salgaien bolumenaren infrabalarazioa gerta daiteke, batez ere barne fluxuen eta bertan sortutako kasuan, horiek garraiatzeko igarotzeko bidaietarako erabiltzen direnak baino dimentsio txikiagoko ibilgailuak erabiltzen baitira.

### 3.1.1 Errepideko garraioko salgaien bolumena

2006. urtean, EAEn guztira 593.654 tona merkantzia manipulatu ziren batez besteko lanegun batean.

Salgaien joan-etorrien %46,4 EAE barneko desplazamenduak izan ziren, eta horien artean aipagarriak dira eskualde barnekoak, guztien %26,7 izan baitziren. Bestalde, joan-etorrien %33,7k EAE du sorburu edo helburu, baina autonomia esparrutik kanpoko beste lurralde batzuekiko erlazioei eutsiz. Azkenik, EAEn batez besteko egun batean mugitzen diren tonen %19,9 igarotzan dabilta.

**Taula 3. Salgaien urteko errepideko garraioa eta batez besteko lanegun batekoak, desplazamendu tipologiaren arabera. 2006**

BIDAIAREN IZAERA		URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TN	PORTZENTAJEA %
EAE Barnekoak	Eskualde barnekoak	47.485.800	158.286	26,7
	Eskualde artekoak	35.036.700	116.789	19,7
	<b>Guztira Barnekoak</b>	<b>82.522.500</b>	<b>275.075</b>	<b>46,4</b>
EAE Kanpokoak	Nazionalak	49.608.000	165.360	27,9
	Nazioartekoak	10.445.400	34.818	5,9
	<b>Guztira Kanpokoak</b>	<b>60.053.400</b>	<b>200.178</b>	<b>33,7</b>
Igarotzan		35.520.300	118.401	19,9
<b>GUZTIRA</b>		<b>178.096.200</b>	<b>593.654</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: SGII eta MI. Geuk egina.*

### 3.1.2 EAE barruan salgaiak garraiatzeko bidaiak

2006an, errepidez garraiatutako salgaiak batez besteko lanegun batean 275.075 izan ziren. Desplazamenduen %83,5 lurralde barnekoak izan ziren, hau da, bai sorburua bai helburua probintzian bertan zeuden; 45.400 tona, berriz, lurralde arteko desplazamenduei zegozkien.

Lurralde Historikoka, Bizkaiak eta Gipuzkoak daukate ahalmen handiena salgai desplazamenduak sortzeko.


**Taula 4. Errepidez garraiatutako salgaien sorburu-helburu matrizea. Batez besteko laneguna. 2006.**

S/H	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Araba	44.642	6.168	5.062	<b>55.872</b>
Bizkaia	10.799	106.660	9.799	<b>127.259</b>
Gipuzkoa	2.135	11.437	78.373	<b>91.944</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>57.576</b>	<b>124.266</b>	<b>93.234</b>	<b>275.075</b>

*Iturria: SGII eta MI. Geuk egina.*


Garraiatutako salgai motari dagokionez, barnekoen %58 Mineral landugabe edo Manufakturuak eta eraikuntzako Materialak dira. Bigarren tokia, %11rekin, Makina, Ibilgailu, Objektu Manufakturu eta Transakzio Berezien garraioari dagokio.

**Grafikoa 1. Errepidez garraiatutako tonak EAE barruan, produktu motaren arabera (EJSN) Batez besteko laneguna. 2006**



*Iturria: SGII. Geuk egina.*

**Grafikoa 2. Errepidez garraiatutako tonak EAE barruan, produktu motaren arabera (EJSN). Batez besteko laneguna. 2006**



*Iturria: SGII. Geuk egina.*

### 3.1.3 Salgaiak errepidez garraiatzeko kanpo bidaiak

2006an, EAEko kanpo bidaietan -hau da, sorburua edo helburua EAEn duten bidaiak baina kanpoko lurralde batekin gauzatzen direnak- batez besteko lanegun batean errepidez garraiatutako tonak 200.182 izan ziren, eta horien artean %82,6 estatuko gainerako lurraldeekiko trukeak izan ziren; gainerako %17,4, berriz, nazioarteko trukeak izan ziren.

**Taula 5. Errepidez garraiatutako tonak, sorburua edo helburua EAEn dutenak. Batez besteko laneguna. 2006**

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Kanpokoak, Nazionalak	42.337	75.453	47.574	<b>165.360</b>
Kanpokoak, Nazioartekoak	6.550	13.395	14.873	<b>34.818</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>48.887</b>	<b>88.848</b>	<b>62.447</b>	<b>200.182</b>

*Iturria: SGII eta MI. Geuk egina.*

Fluxu nazionalen banaketari dagokionez, probintzia mugakideak dira salgai mugimenduen portzentajerik handiena biltzen dutenak. Hala, Nafarroa, Kantabria eta Errioxak %36,9ko portzentajea biltzen dute.

Lurraldeka, hala Arabak nola Gipuzkoak nabarmentzeko moduko salgai trukea daukate Nafarroarekin eta Ebroko Ibarekin; Bizkaiari dagokionez, berriz, Nafarroaren garrantzia txikiagoa da, Kantabriaren mesedetan. Hiru kasuetan, erlazioak hainbat lekutara hedatzen dira; hori dela eta, "gainerakoak" epigrafeak presentzia handia hartzen du.

**Taula 6. Errepidez garraiatutako tonak nazioko kanpo bidaietan. Batez besteko laneguna. 2006**


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Nafarroa	8.898	8.588	13.267	<b>30.753</b>
Ebroko Ibarra	7.531	12.506	10.152	<b>30.189</b>
Goi Lautada eta Galizia	3.692	9.665	5.611	<b>18.968</b>
Kantabria	2.002	13.950	2.477	<b>18.430</b>
Madril	2.389	6.166	5.078	<b>13.633</b>
Errioxa	5.795	4.351	1.759	<b>11.905</b>
Asturias	1.284	4.925	1.580	<b>7.790</b>
Gainerako Espainia	10.744	15.303	7.649	<b>33.697</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.337</b>	<b>75.453</b>	<b>47.574</b>	<b>165.364</b>

*Iturria: SGII eta MI. Geuk egina*

EAEn sortutako eta Espainiako beste Autonomia Erkidego batzuk helburu dituzten salgaien motari dagokionez, jarraian datozen grafikoetan azaltzen da salgaion banaketa produktu motaren arabera.


Garraiatutako salgaien %27 Makinak, Ibilgailuak, Objektu Manufakturatuek eta Transakzio Bereziak epigrafe barruan sartua dago. Mineral Landugabe edo Manufakturatuek eta Eraikuntzako Materialek, berriz, EAEn sortutako eta gainerako Autonomia Erkidegoak helburu dituen salgai garraioaren %20 osatzen dute.

**Grafikoa 3. Errepidez garraiatutako tonak kanpo bidai nazionaletan, produktu motaren arabera (EJSN). Batez besteko laneguna. 2006.**



*Iturria: SGII. Geuk egina.*

**Grafikoa 4. Errepidez garraiatutako tonak kanpo bidaiaria nazionaletan, produktu motaren arabera (EJSN). Batez besteko laneguna. 2006.**



*Iturria: SGII. Geuk egina.*

Nazioarteko salgaien fluxua, batez besteko lanegun batean, 34.818 tonakoa izan zen. Trafikoaren %70 Frantziarekin izan zen, eta gainerako %30, berriz, Europako gainerako herrialdeetatik etorri zen. Aipatu behar da salgaien errepideko garraioan, Gipuzkoak nazioarteko mugimenduen %42,7 sortzen duela.

**Taula 7. Errepidez garraiatutako tonak nazioarteko kanpo bidaietan. Batez besteko laneguna. 2006**


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Frantzia	4,102	9,008	11,263	<b>24,373</b>
Gainerako Europa	2,448	4,387	3,610	<b>10,445</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>6,550</b>	<b>13,395</b>	<b>14,873</b>	<b>34,818</b>

*Iturria: SGII eta MI. Geuk egina.*

Garraiatutako produktu motari dagokionez, Makinak, Ibilgailuak, Objektu Manufakturatutakoak eta Transakzio Bereziak dira EAEn sortutako eta helburua atzerrian duten salgai fluxuen %27. Aipagarria da, daukan bolumen txikiagatik, Erregai Mineral Solidoen trafikoa.




**Grafikoa 5. Errepidez garraiatutako tonak nazioarteko kanpo bidaietan, produktu motaren arabera (EJSN). Batez besteko laneguna. 2006.**



*Iturria: SGII. Geuk egina*

**Grafikoa 6. Errepidez garraiatutako tonak nazioarteko kanpo bidaietan, produktu motaren arabera (EJSN). Batez besteko laneguna. 2006.**



*Iturria: SGII. Geuk egina*

### 3.1.4 Igarotzako bidaiak

2006an EAEn eguneko ibili ziren 5 tona salgaitik 1 ia, igarotzako izan zen, hau da, bai sorburua bai helburua autonomiaz kanpo zegoen.

Frantzia da salgai gehien sorburua, %39,2 biltzen baitu. Hartzaileen artean, berriz, aipatu beharra dago Goi Lautada eta Galizia nabarmentzen direla bai Frantziatik bai gainerako Europatik.

**Taula 8. Igarotzako tonak errepidez EAEn. Batez besteko laneguna. 2006**


SORBURUA	HELBURUA	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TONAK
KANTAURI ITSASOKO ERTZA	EBROKO IBARRA	5.987
KANTAURI ITSASOKO ERTZA	NAFARROA	2.927
ESPAINIA BARRUKO GAINERAKO IGAROTZAKO ERLAZIOAK		1.207
FRANTZIA	KANTAURI ITSASOKO ERTZA	3.480
FRANTZIA	GOI LAUTADA ETA GALIZIA	19.039
FRANTZIA	NAFARROA	5.627
FRANTZIA	EBROKO IBARRA	5.322
FRANTZIA	GAINERAKO ESPAINIA	12.984
GAINERAKO EUROPA(*)	KANTAURI ITSASOKO ERTZA	2.370
GAINERAKO EUROPA(*)	GOI LAUTADA ETA GALIZIA	14.476
GAINERAKO EUROPA(*)	NAFARROA	3.362
GAINERAKO EUROPA(*)	GAINERAKO ESPAINIA	15.548
PORTUGAL	GAINERAKO EUROPA ETA FRANTZIA	26.072
<b>TOTAL</b>		<b>118.401</b>

*Iturria: SGII eta MI. Geuk egina*

*\*Portugal kenduta*


Euskal errepideetako igarotzako salgai mota ohikoenei dagokienez, Makinak, Ibilgailuak, Objektu Manufakturuak eta Transakzio berezietan lotutakoak guztien %39 dira. Horiekin batera, Nekazaritzako produktuek eta animalia biziek igarotzako salgai guztien %19 osatzen dute.

**Grafikoa 7. Errepidez garraiatutako igarotzako tonak, produktu motaren arabera (EJSN). Batez besteko laneguna. 2006.**



*Iturria: SGII. Geuk egina.*

**Grafikoa 8. Errepidez garraiatutako igarotzako tonak, produktu motaren arabera (EJSN). Batez besteko laneguna. 2006.**



*Iturria: SGII. Geuk egina.*

### 3.2 Salgaien aireko garraioa

2006an, salgaien aireko trafikoa, EAEko hiru aireportuetan, urteko 39.147<sup>2</sup> tona izan zen.

Forondako aireportuak salgaien fluxuen %90,5 inguru biltzen du. Hortik oso urrun dago Loiuakoa (%8,8); eta Hondarribikoak, berriz, %0,7 baino ez du biltzen.

EAEEn dabilzan 4 tonatik 3 inguru nazioarteko hegaldietatik datoz, eta gainerako %23,1, etxeko hegaldiei dagokie. Balio hori bereziki adierazgarria da Forondako aireportuan, non salgaien %80tik gora nazioartekoa den.

**Taula 9. EAEEn airez garraiatutako tonak urtean. 2006**

TRAFIKOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Etxekoa	6.576	2.184	271	9.031
Nazioartekoa	28.846	1.259	11	30.117
<b>GUZTIRA</b>	<b>35.422</b>	<b>3.443</b>	<b>282</b>	<b>39.148</b>

*Iturria:* Aena. Geuk egina

#### SALGAIEN EGUNEKO MUGIMENDUA

2006. urtean, guztira 130 tona salgai igaro zen EAEEn batez besteko lanegun batean.

EAEko aireportuen artean, Forondakoa da nagusiki salgaien trafikora zuzendutako aireportua, eguneko 118 tonarekin.

**Taula 10. EAEEn airez garraiatutako tonak. Batez besteko laneguna. 2006**


TRAFIKOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Etxekoa	22	7	1	30
Nazioartekoa	96	4	0	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>118</b>	<b>11</b>	<b>1</b>	<b>130</b>

*Iturria:* Aena. Geuk egina

<sup>2</sup> Igarotzean daudenak kontutan harturik.

Salgaien trafikoan Forondako aireportua nagusi bada ere, alde handiak daude tipologiari erreparatuz gero. Hala, etxeko hegaldietan, 4tik 1 Loiuako aireportuan izaten da; nazioarteko hegaldietan, berriz, salgaien %96 Forondan manipulatzeko da eta gainerako %4 Loiu. Hondarribian bat ere ez.

**Grafikoa 9. Salgaien aireko garraioa EAEko aireportuetan. 2006**



*Iturria: Aena. Geuk egina.*

### 3.3 Salgaien trenbideko garraioa

EAEn badira hiru operadore salgaien trenbideko garraioan dihardutenak: RENFE, FEVE eta Euskotren.

Ondoren, 2006 urteari buruz hiru enpresa horiek emandako datuak azalduko ditugu. Datuok garraiatutako bolumenei eta bolumen horien sorburu geografikoari buruzkoak dira.

#### 3.3.1 Renferen salgai garraioa

Salgaiei buruz RENFEK emandako datuek bakarrik 2005. urteari egiten diote erreferentzia. Hori dela eta, 2006ko datuak kalkulatzeko, 2000-2005 aldiaren Espainian izandako salgaien trenbideko trafikotik abiatu gara. Informazioa Sustapen Ministerioak argitaratutako estatistiketatik atera dugu.

2006. urtean, EAEn RENFEK garraiatutako salgaien bolumena batez besteko lanegun batean 17.683 tonakoa zen (bagoi beteak eta edukiontziak barne). Trafikoen erdia baino gehiago (%55,2) Gipuzkoan izan zen; Bizkaian, %37,9; eta Araban gainerako %6,9.

Ildo horretan, aipatu behar da Irungo eta Bilboko portuan dagoen Santurtziko trenbide guneek daukaten garrantzi handia. Izan ere, horietako bakoitzak manipulatzeko du RENFEK EAEn duen salgai trafikoaren %30.

**Taula 11. RENFEk manipulaturako tonak EAEko kargako terminal nagusietan. 2006**

KARGAKO TERMINALAK	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TONAK	%
Jundiz	357.178	1.191	6,7%
Agurain	5.257	18	0,1%
Amurrio	4.912	16	0,1%
<b>Araba</b>	<b>367.347</b>	<b>1.224</b>	<b>6,9%</b>
Irun	1.639.839	5.466	30,9%
Hendaia	644.901	2.150	12,2%
Lezo-Errenteria	381.658	1.272	7,2%
Pasaia	232.965	777	4,4%
Zumarraga	22.375	75	0,4%
Beasain	6.676	22	0,1%
<b>Gipuzkoa</b>	<b>2.928.414</b>	<b>9.761</b>	<b>55,2%</b>
Santurtzi	1.597.909	5.326	30,1%
Sestao	316.284	1.054	6,0%
Lutxana	45.901	153	0,9%
Zorrotza	14.357	48	0,3%
Bidebieta	34.785	116	0,7%
<b>Bizkaia</b>	<b>2.009.236</b>	<b>6.697</b>	<b>37,9%</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.304.997</b>	<b>17.683</b>	<b>100,0%</b>

*Iturria: Renfe. Geuk egina.*


### 3.3.2 Feveren salgai garraioa

2006an FEVEk garraiatutako salgaien bolumena 1.148.393 tonakoa izan zen.

2006an FEVEk eguneko 3.827 tona garraiatu zuen batez beste eta horietatik 3.521ek EAEko lekuren bat zuen sorburu edo helburu.

FEVERen salgai trafikoaren zatirik handiena EAE eta Asturias artekoa da, hau da, guztiaren %57,3 2006an, eta ondoren Gaztela eta Leon, %28,4rekin. Bestalde, EAE sorburu edo helburu duten salgaietatik, Galiziak %9 bildu zuen eta Kantabriak, berriz, %5,3.

**Grafikoa 10. FEVEk manipulaturako salgaien helburua. 2006. urtea**



*Iturria: FEVE eta geuk egina*

FEVEren salgai fluxuen %93,6 kanpotik dator eta Bizkaia du helburu; gainerako %6,4arekin, berriz, alderantziz gertatzen da.

### 3.3.3 Euskotrenen salgai garraioa

2006an, Euskotrenek 167.476 tonako salgai joan-etorria izan zuen.

Salgai fluxu hori guztia Aritz-Basauri eta Lasarteko geltokien artean gertatzen da, FEVEren Avilesko lineatik etorrira. Behin salgaiak Lasartera iristen direnean, Lesakara garraiatzen dituzte kamioiz, beraz, EAE barruko trafikoez ari gara. Euskotrenek garraiatutako salgaiak txapazko bobinak dira bakarrik.

**Taula 12. EAEn Euskotrenek manipulaturako tonak. 2006**

URTEA	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TON.
2006	167.476	558

*Iturria: Euskotren. Geuk egina*

## 3.4 Salgaien itsasoko garraioa

### 3.4.1 Bilboko portua

2006. urtean, Bilboko portuak 37.208.294 tona mugitu zuen guztira, bestela esanda, batez besteko laneguneko 124.029 tonako mugimendua izan zen.

Trafiko horren %92,1 nazioartekoa da eta soilik salgaien %7,9 dator estatutik.

**Taula 13. Bilboko portuan garraiatutako tonak, sorburuaren arabera. Batez besteko laneguna. 2006**

SORBURUA	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TONAK	%
Kabotajea	2.936.047	9.787	7,9
Kanpoko	34.272.247	114.241	92,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>37.208.294</b>	<b>124.028</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Uniport. Geuk egina*

**Taula 14. Bilboko portuan garraiatutako tonak, eremu geografikoen arabera. Batez besteko laneguna. 2006.**

EREMUA	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO TONAK	%
Europa Atlantikoa	16.872.963	56.243	49,2
Asia Indiakoa	3.995.959	13.320	11,7
Amerika Ipar Atlantikoa	3.109.023	10.363	9,1
Amerika Hego Atlantikoa	2.285.960	7.620	6,7
Afrika Atlantikoa	2.242.161	7.474	6,5
Asia Ozeano Barekoa	1.589.916	5.300	4,6
Ertamerika eta Karibea	1.466.913	4.890	4,3
Europa Mediterraneo	1.140.973	3.803	3,3
Afrika Mediterraneo	542.017	1.807	1,6
Hegoamerika – Ozeano Barea	432.883	1.443	1,3
Afrika Indiakoa	282.871	943	0,8
Asia Mediterraneo	132.858	443	0,4
Ezezaguna	113.878	380	0,3
Ozeania	37.959	127	0,1
Amerika Ozeano Bare Iparrekoa	25.915	86	0,1
<b>TOTAL</b>	<b>34.272.247</b>	<b>114.241</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Uniport. Geuk egina*



Portu honetan izaten diren salgai mugimenduen 4tik 3 inguru deskargak dira, eta 4tik 1, berriz, zamatzeak. Hala, itsasoko trafikoaren zatirik handiena beste lurralde batzuetatik datozen inportazioei dagokie; esportazioen garrantzi erlatiboa, berriz, askoz ere txikiagoa da.

**Taula 15. Urteko tonak eta batez besteko lanegun batekoa Bilboko portuan, mugimenduaren tipologiaren arabera. 2006**

	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TON.	%
Zamatuak	9.612.066	32.041	25,8
Deskargatuak	27.596.228	91.987	74,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>37.208.294</b>	<b>124.028</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Uniport. Geuk egina*

2006an manipulatu ziren salgaien tipologiari dagokionez, nabarmentzekoak dira solteko gai likidoak (petrolio produktuak, gas naturala eta beste produktu likido batzuk), %60 izatera iritsi zirenak. Bestalde, 4 tonatik 1 orotariko salgaiei dagokie eta gainerako %14,8, berriz, solteko gai solidoen epigrafe barruan sartua dago.

**Taula 16. Bilboko portuan garraiatutako tonak, salgai motaren arabera. Batez besteko laneguna. 2006.**

	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TON.	%
Solteko gai likidoak	22.289.717	74.290	60,0
Solteko gai solidoak	5.524.250	18.414	14,8
Salgai orokorrak	9.394.327	31.314	25,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>37.208.294</b>	<b>124.028</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Uniport. Geuk egina*

### 3.4.2 Pasaiako portua

2006an, Pasaiako Portuan 5.451.553 tona salgai manipulatu zen guztira, hau da, EAEn izandako itsasoko trafikoaren %13.

Portuan manipulatu ziren salgaien %88,9 kanpotik zetorren, eta gainerako %11,1, berriz, estatuko beste portu batzuetatik.

**Taula 17. Pasaiaiko portuan garraiatutako tonak, sorburuaren arabera. Batez besteko laneguna. 2006**

SORBURUA	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TON.	%
Kabotajea	606.661	2.022	11,1
Kanpoko	4.844.892	16.150	88,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.451.553</b>	<b>18.172</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Pasaiaiko Portua. Geuk egina.*

Portu honetako salgaien elkartrukea Europar Batasuneko gainerako herrialdeekin egiten da nagusiki (%60,1). Epigrafe honetan bereziki aipagarriak dira Erresuma Batuarekiko fluxuak, urteko 1.134.625 tonara iristen direnak.

Bigarrenik, Gainerako Europarekin egiten diren elkartrukeak izango ditugu aipagarri; izan ere, %19,5 osatzen baitute, eta nagusiki Errusiarekiko trukeak dira (815.869 tona/urtean).

**Taula 18. Urteko tonak eta batez besteko lanegun batekoak Pasaiaiko portuan, eremu geografikoen arabera. 2006**

EREMUA	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TON.	%
EB	2.909.508	9.698	60,1
Gainerako Europa	945.937	3.153	19,5
Amerika	452.190	1.507	9,3
Afrika	174.448	581	3,6
Asia	44.824	149	0,9
Gainerako Mundua	317.985	1.060	6,6
<b>GUZTIRA, OROKORRA</b>	<b>4.844.892</b>	<b>16.150</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Pasaiaiko Portua. Geuk egina.*

Pasaiaiko mugimenduen banaketari dagokionez, aipatu beharra dago 5 tonatik 4 bat deskargatu egin zirela eta 5 tonatik 1 bakarrik zamatu zela.

**Taula 19. Pasaiko portuan garraiatutako urteko tonak eta batez besteko lanegun batekoak, mugimendu motaren arabera. 2006**

	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TON.	%
Zamatuak	1.126.958	3.757	20,7
Deskargatuak	4.324.595	14.415	79,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.451.553</b>	<b>18.172</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Pasaiko Portua. Geuk egina.*

Pasaian manipulatu ziren salgaien tipologiari dagokionez, solteko gai solidotzat jotzen direnak dira nagusi (%59,6). Hala ere, 2006. urtean orotariko salgaiak izan zuten hazkunderik handiena, izan ere, manipulaturako 2,2 milioi tonara iritsi ziren.

**Taula 20. Urteko tonak eta batez besteko lanegun batekoak Pasaiko portuan, salgaien tipologiaren arabera. 2006.**

TIPO	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TON.	%
Solteko gai solidoak	3.248.288	10.828	59,6
Orotariko salgaiak	2.203.265	7.344	40,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.451.553</b>	<b>18.172</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Pasaiko Portua. Geuk egina.*

### 3.4.3 Bermeoko portua

2006. urtean, Bermeoko Portuan 304.319 tonako mugimendua izan zen, hau da, EAEko hiru merkataritza portuetan sortutako itsas trafiko guztiaren %0,7.

Salgaien mugimendu horren arabera, batez besteko lanegun batean 834 tona mugitzen da. Izandako mugimenduen %70 deskargak izan ziren eta gainerakoak, berriz, zamatzeak.

**Taula 21. Urteko tonak eta batez besteko lanegun batekoak Bermeoko portuan, mugimendu motaren arabera. 2006.**

	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TON.	%
Zamatuak	91.439	305	30,0
Deskargatuak	212.880	710	70,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>304.319</b>	<b>1.014</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Bermeoko Portua. Geuk egina.*

Bermeoko Portuan joan-etorrian dabiltzan salgaien tipologiari dagokionez, orotariko salgaiak nabarmentzen dira (%53,3), eta gainerakoa, berriz, solteko gai solidotzat jotzen da (%46,7).

**Taula 22. Urteko tonak eta batez besteko lanegun batekoak Bermeoko portuan, salgaien tipologiaren arabera. 2006**

MOTA	URTEKO TONAK	BATEZ BESTEKO LANEGUN BATEKO TON.	%
Solteko gai likidoak	0	0	0,0
Solteko gai solidoak	162.292	541	53,3
Orotariko salgaiak	142.028	473	46,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>304.319</b>	<b>1.014</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Bermeoko Portua. Geuk egina.*

## 3.5 Laburpena eta ondorioak

### 3.5.1 Salgaien bolumena

2006an, salgaien trafikoa 227.720.380 tonakoa izan zen EAEn.

Salgaien garraioaren %47,2 EAetik kanpoko bidaiei zegokien; %36,5, berriz, autonomia barneko bidaiei; eta gainerako %16,3, azkenik, igarotzako salgaiak ziren.


**Taula 23. EAEn garraiatutako urteko tonak, tipologiaren eta garraio moduaren arabera. 2006**

BIDAIAK	ERREPIDEZ	AIREZ	TRENEZ	ITSASOZ	GUZTIRA
Barnekoak	82.522.500	0	623.032	0	83.145.532
Kanpokoak	60.053.400	39.148	4.452.537	42.964.166	107.509.251
Igarotzan	35.520.300	0	1.545.297	0	37.065.597
<b>GUZTIRA</b>	<b>178.096.200</b>	<b>39.148</b>	<b>6.620.866</b>	<b>42.964.166</b>	<b>227.720.380</b>

**Taula 24. EAEn batez besteko lanegun batean garraiatutako tonak, tipologiaren eta garraio moduaren arabera. 2006**

BIDAIAK	ERREPIDEZ	AIREZ	TRENEZ	ITSASOZ	GUZTIRA
Barnekoak	275.075	0	2.077	0	277.152
Kanpokoak	200.178	130	14.842	143.214	358.364
Igarotzan	118.401	0	5.151	0	123.552
<b>GUZTIRA</b>	<b>593.654</b>	<b>130</b>	<b>22.070</b>	<b>143.214</b>	<b>759.068</b>


**Grafikoa 11. EAEn garraiatutako salgaiak, desplazamendu tipologiaren arabera. 2006.**



### 3.5.2 Banaketa modala<sup>3</sup>

2006an, EAEn garraiatu ziren salgai gehienak errepidez mugitu ziren eta 593.654 tona izatera iritsi ziren batez besteko lanegun bakoitzeko. Itsasoz, berriz, 43.214 tona garraiatu ziren, eta trenez, 22.070.

**Grafikoa 12. EAEn garraiatutako salgaiak, garraio moduaren arabera. 2006. urtea.**



Hala, errepideko garraioa dugu sartze kuotarik handiena biltzen duen modua, %78,21ekin; ondoren dator itsasoko trafikoa, EAEn garraiatzen diren salgaien %18,87 biltzen duena.

Desplazamendu motaren araberako garraio bide banaketari dagokionez, esan beharra dago barneko bidaietan kamioia dugula garraio bide bakarra ia-ia, trenez halako bidaien %0,75 soilik egiten baita.

Kanpo bidaiari dagokionez, sakabanatze handiagoa ikusten da garraio bideen artean. Kanpo bidaien %55,86 errepidez egiten da, %39,96 itsasoz, %4,14 trenez eta gainerako %0,04 hegazkinez.

Azkenik, igarotzeko salgaien %95,83 errepidez garraiatu ziren eta %4,17, berriz, trenez.

<sup>3</sup> Kasu honetan bi zenbaki hamartarrak mantendu dira, abioia ager dadin(%0,01).

**Taula 25. EAEn garraiatutako tonak, tipologiaren eta garraio moduaren arabera. % 2006**

BIDAIAK	ERREPIDEZ	AIREZ	TRENEZ	ITSASOZ	GUZTIRA
Barnekoak	99,25%	0,00%	0,75%	0,00%	100,00%
Kanpokoak	55,86%	0,04%	4,14%	39,96%	100,00%
Igarotzan	95,83%	0,00%	4,17%	0,00%	100,00%
<b>GUZTIRA</b>	<b>78,21%</b>	<b>0,02%</b>	<b>2,91%</b>	<b>18,87%</b>	<b>100,00%</b>

### 3.5.3 Salgaien garraioari buruzko ondorioak

- ✓ 2006. urtean, EAEn garraiatutako salgaien bolumena 272.720.380 izan zen.
- ✓ Trafiko horren guztiaren %78,21 errepidez egin zen. Itsasoko moduak %18,87 bildu zuen eta beste bi moduen presentzia oso txikia izan zen.
- ✓ Garraiatutako salgai gehienak (%47,2) EAEn sortutako desplazamenduei dagozkie, baina autonomia erkidegotik kanpoko beste lurralde batzuekin lotuak. %36,5 barne desplazamenduak izan ziren eta %16,3, berriz, bai sorburua bai helburua autonomia erkidegotik kanpo zeukaten joan-etorriak.
- ✓ EAEko aireko salgaien trafikoaren %90 Forondako aireportuak biltzen du. Dena dela, aireportu horretan bidaiari fluxuaren hazkundera nabaritzen hasi da salgaiekiko.
- ✓ Salgaien trenbideko trafikoari dagokionez, RENFE izan zen tona bolumenik handiena manipulatu zuena 2006an (5.304.997 tona - %80); ondoren, FEVE (1.148.393 tona - %17), eta azkenik, Euskotren, %3ko presentziarekin (167.476 tona).
- ✓ 2006an, salgaien itsasoko trafikoa 42.964.166 tonara iritsi zen. Manipulatutako salgaien hiru laurden (%74,8) deskargak izan ziren.
- ✓ EAEn, Bilboko portuak salgaien joan-etorrien %86,6 biltzen du; ondoren dator Pasaia (%12,7) eta gero, garrantzi txikiagoa duen Bermeo, %0,7rekin.